

## GOBERNU BATZARRA

2015. 01. 30

- Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita hamarrean, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
- Ibai Iriarte San Vicente**
- Zinegotziak:**
- Lore Agirre Zipitria**  
**Hasier de los Rios Soraluze**  
**Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.**
- Idazkaria:**
- Jose Luis Unanue Ugalde**
- Kontuhartzaitzako Teknikaria:**
- Paulino Alonso Eraso**
- 1.- Aurreko akta onartzea.
  - 2.- Udal Liburutegiko auxiliarraren ordezkapena egiteko hitzarmenaren luzapena.
  - 3.- Tasen hobaria edo salbuespena.
  - 4.-Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 errepiden galtzada aldatzeko eta amarotz Auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 8. ziurtagiria (FV1-1412-0152 faktura).
  - 5.-Tolosako Musika Banda: Ordainketak eguneratu.
  - 6.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2014ko abenduko faktura.
  - 7.-Langunea Tolosaldea 2014 programaren barruan dirulaguntza ematea.
  - 8.-2014. urtean Auto-konposta eta Auzokonposta egiten duten familiei hondakinen tasan dirulaguntza emateko proposamena. Zuzenketa.
  - 9.-Santa Lutziako nekazaritza hazitegian lan egiteko esleipen proposamena.

**10.-Bedaiko Abadetxe etxean sendotze eta lurreztatze obrak egiteko obraren esleipena/ Adjudicación de las obras de “Consolidación y recalce de la casa Abadetxe en Bº Bedaio.**

**11.-44/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko urtarrilaren 23an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Udal Liburutegiko auxiliarraren ordezkapena egiteko hitzarmenaren luzapena.**

Bi mila hamahiruko urtarrilaren 7tik aurrera Tolosako Udal liburutegian lanean ari zen M.L. auxiliarra, udaleko pertsonal sailean ara da.

Langile honek, jornada osoko dedikazioa zeukan liburutegian, goiz eta arratsaldez.

Aldaketa honek sortu zuen hutsunea betetzeko, udaleko beste zerbitzu batzuen kudeaketarako lehiaketa baten ondorioz kontratatuta daukagun Eusko Eki enpresarekin jarri ziren harremanetan, kontratu txiki baten bidez premi honi erantzun ahal izateko.

Ondoren, kontratu hau amaitu zenean, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz egindako lehiaketaren ondorioz, enpresa beronekin urtebeteko lanak kontratatu ahal izan genituen. Kontratu honek amaiera 2014ko otsailaren 28an zuen.

Data honetatik aurrera, ordea, beharrak bere horretan jarraitu zuen eta, beraz, lehiaketa berri batera jo zen hurrengo urteetan ere behar horri erantzuan ahal izateko.

Lehiaketa hau publizitaterik gabeko prozedura negoziatuz egin zen, hiru enpresari proposamena eskatuta. Eusko Eki enpresa izan zen lehiaketaren irabazlea.

Kontratuaren epea 2014ko martxoaren 1etik 2015eko otsailaren 28rainokoa da.

Kontratu honen barruan dator 2015eko martxoaren 1etik 2016ko otsailaren 28 arteko luzapenaren aukera, aurreko baldintza beretan.

Aipatutakoa kontuan izanik eta kontratuaren amaiera iristeko zorian dagoela, Gobernu Batzar honek, Kultur teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritik, aho batez eta Alkateak emandako ahalmenez balituta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Aipatutako luzapena gauzatzea 2015eko martxoaren 1etik 2016ko otsailaren 28ra, orain arteko baldintza beretan, ikusita errefortzu beharrak bere horretan irauten dutela.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura departamentuari eta Eusko Eki enpresari.

### 3.- Tasen hobaria edo salbuespena.

Bi mila hamahiruko irailaren 6an, J.A.-a.B.-ek jarduera baimena eskatu zuen Donostia Etorbidea 22W 11 zenbakian ibilgailuak konpontzeko tailerra martxan jartzeko.

Bi mila habamosteko urtarrilaren 12an, 2015/36 Alkatetza Dekreturen bidez, jarduera baimena eman zitzaion. Baimen honekin batera, dagokion likidazioa pasa zitzaion:

. Eraikuntza, instalazio et obren gaineko zerga: 480,79 €

. Obra baimenaren tasa: 343,90 €

. Jarduera baimena: 3.434,85€

**DENERA: 4.259,54 €**

Ibilgailuak konpontzeko tailerra Tolosako Donostia etorbidea 22w 11 zenbakian kokatuko da. Lokal horren izaera industrialakenez, jarduera baimena ematerakoan "industria" bezala likidatu zitzaion tasa. Baina, jarduera begiratzaren badugu, ibilgailuak konpontzeko tailerrak zerbitzu bat eskaintzen du.

Industria izaerako enpresen ezaugarrietako bat ondorengoa da: lehengai batzuk erosi eta hauek eraldatzea, azken produktua lortzeko. Zerbitzu izaerako enpresek, aldiz, zerbitzuen salmenta eskeintzen dute, bai profesionalak, baita beste mota batzuetakoak ere. Bien arteko desberdintasunak aztertuz, ibilgailuak konpontzeko tailerra zerbitzu izaerako enpresa dela esan daiteke, nahiz eta industria izaerako ondasun higiezin batean kokatu.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Kontuhartzaitza departamentuak egin duen txostenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Deseuztatzea aurreko likidazioa eta bere ordez likidazio berri hau onartzea:

. Eraikuntza, instalazio et obren gaineko zerga: 480,79 €

. Obra baimenaren tasa: 343,90 €

. Jarduera baimena: 2.578,50€

**DENERA: 3.403,19 €**

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

**4.- Tolosako Amartz Auzoan GI-2135 errepiden galtzada aldatzeko eta amartz Auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 8. ziurtagiria (FV1-1412-0152 faktura).**

Udaleko Gobernu Batzarraren ebazpen bidez, 2014ko martxoaren 28an, Campezo Obras y Servicios, S.A, enpresari esleitu zitzaion "Tolosako Amartz Auzoan GI-2135 Errepidean Galtzada Aldatzeko eta Amartz Auzoan Berdeguneak Sortzeko Urbanizazio Osagarrien Obrak Egiteko" kontratua, 1.612.601,25 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, BEZ barne:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria.....FV1-1406-0009.....77.763,59€

2. ziurtagiria.....FV1-1406-0047.....154.064,39€

3. ziurtagiria.....FV1-1408-0002.....78.683,35€

4. ziurtagiria.....FV1-1409-0021.....158.986,70€

5. ziurtagiria.....FV1-1410-0024.....224.834,17€

6. ziurtagiria.....FV1-1411-0034.....357.173,15€

7. ziurtagiria.....FV1-1412-0029.....305.193,88€

GUZTIRA.....1.356.699,23 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako zortzigarrena, honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

8. ziurtagiria.....FV1-1412-0152.....103.836,51 €

Ziurtagiri hau aztertuta eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea "Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 Errepidean Galtzada Aldatzeko eta Amarotz Auzoan Berdeguneak Sortzeko Urbanizazio Osagarrien Obrak Egiteko" kontratuaren 8. ziurtagiria (fak zkia: FV1-1412-0152) 103.836,51 € (BEZ barne).

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Campezo Obras y Servicios, S.A, enpresari eta Kontuhartzaitzari.

### **5.-Tolosako Musika Banda: Ordainketak eguneratu.**

Azken urteetan, Tolosako udalak Tolosako Musika Bandari bi kontzeptuengatik ordainketa egiten dio urtero: jantziengatik eta dietengatik. Bi kasuetan, urtero KPla igotzen zaie.

#### **1.- JANTZIAK**

Jantzien kasuan, ordainketa urtean behin egiten da. Eta erabiltzen den KPla, Euskal Herriko (3 probintziak soilik) abenduko KPla izaten da.

2014ko martxoaren 28an, Gobernu Batzarrak, 2014 urtean 1.636,24 euro ordaintzea erabaki zuen.

2015 urtean, Hego Euskal Herriko 3 probintzietako abenduko KPla %- 0,7 izan denez, 2015 urtean **1.624,79 euro** ordaintzea proposatzen da.

#### **2.-DIETAK**

Kasu honetan, ordainketa hilero egiten da. Eta kopurua urriko KPlarekin eguneratzen da.

2014 urtean, urtarriletik urrira, 9.194,84 euroko fakturak ordaindu dira.

2014ko azaroan eguneratu egin behar da kopuru hori. Urriko KPla %0,2 dela kontuan hartuz, **9.213,23** eurotara igotzen da. Kopuru hori, 2014ko azarotik 2015eko urria bitarte ordainduko da hilabetero.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Jantziei dagokienez, 2015 urtean 1.624,79 euro ordaintzea.

**BIGARRENA**.- Dietei dagokienez, 2014ko azarotik 2015eko urri bitarte 9.213,23 euro ordaintzea hilabetero. Beraz, dagoeneko, 2014ko azaroan 9.194,84 euro ordaindu direla kontuan izanik, azaroari dagokionez, diferentzia ordaintzea. Hau da, 18,39 euro.

	<b>ORDAINDU BEHARREKOA</b>
<b>JANTZIAK</b>	<b>1.624,79 €</b>
<b>DIETAK</b>	
<b>AZAROA</b>	<b>18,39 €</b>
<b>ABENDUTIK URRIRA</b>	<b>9.213,23 €</b>

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari ,Kultura departamentuari eta Tolosako Musika Bandakokideei.

### **6.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2014ko abenduko faktura.**

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa: atez-atekoa, landa eremukoa eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

\* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturaleri dagokiena.

\***Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2014ko abenduari dagokion faktura, 2014/400 ( 123.936,67€-koa), aurkeztu du.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako faktura (abenduari dagokiona). Kopuru osoa: 123.936,67 €.

**BIGARRENA-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

### **7.- Langunea Tolosaldea 2014 programaren barruan dirulaguntza ematea.**

Lanbideren zuzendari nagusiaren 2013ko urriaren 30eko Ebazpenak ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEKO deialdia onartu zuen.

Hori dela eta, 2014ko maiatzaren 16an, Tolosako Udalak eta Tolosaldea Garatzenek hitzarmena sinatu zuten "Langunea Tolosaldea 2014" proiektua aurrera eramateko.

2014ko irailaren 26ko 2014/1231 Alkate Dekretu bidez, Udalak erabaki zuen Lanbideri dirulaguntza eskatzea.

Ildo horretatik, hainbat enpresek interesa azaldu dute "Langunea Tolosaldean 2014" programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatzeko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Ondoren agertzen den enpresari dirulaguntza hau ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko den hitzarmenean jarritakoak betetzen baditu.

Enpresa	Kontratu kopurua	Kontratu iraupena	Lanaldia	Langilea	Dirulaguntza
Isastegi Sagar-dotegia S.L.	1	3 hilabete	Osoa	A.H.	3.000,00

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Ingurumen Enplegu eta Garapen ekonomikoa departamentuari.

**8.-2014. urtean Auto-konposta eta Auzokonposta egiten duten familiei hondakinen tasan dirulaguntza emateko proposamena. Zuzenketa.**

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2014ko abenduaren 19 an erabaki zuen auto-konposta eta auzo-konposta egiten duten familiei hondakinen tasan %30eko diru laguntza ematea. Hala ere akordioarekin eransten ziren zerrendetan akats batzuk identifikatu dira. Hori dela eta zerrenda hauek berriz aztertu ondoren zuzenketak egin dira; dagokion espedientean jasotzen direnak.

**AUTOKONPOSTA:**

Ondorengoak abenduaren 19an onartutako zerrendatik kanpo geratzen dira:

Bestalde, abenduaren 19an onartutako zerrendan ez zeuden autokonposta egiten zuten batzuk ezarritako baldintza guztiak betez.

Gainera, auzokonpostari dagokion zuzenketak ere egiten dira, guztiak espedientean jasotzen direnak.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumen teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Zuzenketak eta zerrenda osaketak burututa gero, goian aipatu den bezala, auzokonposta eta autokonposta egiten duten familiei hondakinen tasaren %30eko dirulaguntza ematea, beti ere konpostatzen daramaten denbora kontuan hartuz, banaketa honen arabera:

	<b>Tasa</b>	<b>96,8</b>		
	Kopurua	Urte osoa	Hobaria bakoitza	Guztira
<b>Amarotz 1</b>	37	30%	29,04	1074,48
<b>Alliri</b>	19	30%	29,04	551,76
<b>Arkaute</b>	29	30%	29,04	842,16
<b>Lore Arte</b>	14	30%	29,04	406,56
<b>Zabalarreta</b>	Kopurua	<b>Urte osoa</b>		
	23	30%	29,04	667,92
		<b>Urriak 2 etxola</b>		



		<b>3 hilabete</b>		
	10	7,50%	7,26	72,6
		<b>8 hilabete</b>		
<b>Amarotz 2</b>	26	20%	19,36	503,36
		<b>7 hilabete</b>		
<b>Uzturre</b>	28	17,50%	16,94	474,32
		<b>5 hilabete</b>		
<b>lurre</b>	26	12,5%	12,1	314,6
		<b>3 hilabete</b>		
<b>San Esteban</b>	7	8%	7,26	50,82
				<b>4958,58</b>
<b>Autokonposta</b>	47	30%	29,04	<b>1364,88</b>
		Guztira		<b>6323,46</b>

**BIGARRENA.**- Espedientean agertzen diren zerrendetan titular bakoitzari esleitzen zaion dirulaguntza ordaintzea.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri kontuhartzailletza eta Ingurumen sailari ematea.

## **9.- Santa Lutziako nekazaritza hazitegian lan egiteko esleipen proposamena.**

Bi mila hamalauko uztailaren 24ko Gobernu Batzordearen bidez, ondorengo erabaki hau hartu zen: ***Lizentzien adjudikazio-deialdirako oinarriak onartzea Tolosako Santa Lutzia nekazaritza hazitegian lur sailak erabiltzeko.***

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu zen 2014ko abuztuaren 8an eta eskaerak aurkezteko epea 30 eguneko izan zen.

Alkateak emandako 2014/1274 Dekretuaren bidez, izena emateko epe berri bat ireki zen. Epe berri honetan 3 eskaera sartu ziren.

Proiektuaren Jarraipen Batzordea, Tolomendi, Fraisoro Eskola eta Tolosako udalak osatzen dutenak, 2014ko urriaren 8an bildu zen. Bertan eskaerak eta dokumentazioa aztertu ziren. Hiru eskaerak oinarrietan eskatzen ziren baldintzak betetzen zituztenez eta, 3 pertsonentzako lekua zegoenez, eskaerak onartzea erabaki zen.

Bi mila hamalauko irailaren 8an, proposamenak aztertu ondoren, behin behineko esleipenak egin eta kontratatzailearen profilean publikatu ziren. Epe honetan ez zen alegaziorik egon. Deialdiaren oinarrien arabera, behin betiko esleipena egin ondoren, Tolosako udalak eta aprobetxamendua esleitzen zaion pertsonak kontratu bat sinatuko dute.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumen Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU:**

**LEHENA**.- Santa Lutzia nekazaritza hazitegian lur sailak erabiltzeko ondorengo esleipenak egitea:

Jesus M <sup>a</sup> Beneitez Carro	A lursaila
Nestor Errasti Lizaso	B lursaila
Iñigo Mugica Erquicia	C lursaila

**BIGARRENA**.-Udalak esleipenean ezarriko diren ondorengo erabilpen baldintzak onartzea:

“Tolosako Udalak esleipendunaren eskura ondokoa jarriko du:

A, B, C letrekin izendatutako lursailak indibidualki erabiltzeko.

- Beste bi esleipendunekin batera, eremu komun hauek erabilgarri izango ditu:

\* txabola bat, tresna eta ekoizten diren produktuen gordailu gisa erabiltzeko.

\*Modulo prefabrikatu bat, non aldagelak komuna eta dutxa aurkitzen diren.

\* Ur instalazioa.

**Esleipenean ondorengo eranskin hauek atxikituko dira:**

- I. Eranskinean , lursailak identifikatzen diren planoak.

-II.Eranskinean, Hiru erabiltzaileek komunean erabiltzeko azpiegiturak deskribatzen dituen planoak.

-III. Eranskinean, zerrendatzen diren tresna eta makinak.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea esleipendunei, Tolomendiri, Fraisoro Eskolari eta Ingurumen Departamentuari.

**10.-Bedaioko Abadetxe etxean sendotze eta lurreztatze obrak egiteko obraren esleipena.-**

Bi mila hamalauko abenduaren 5ean ospatutako Gobernu Batzarrean onartu zen Tolosako "Bedaio auzoko Abadetxe etxean sendotze eta lurreztatze" obrak kontratatzeko espedientea.

Izapideak egin ondoren, lizitazioa GAO-n eta Kontratatzaileren profileen argitaratu zen, interesatuek proposamenak aurkez zitzaten.

Lizitazio epean, honako hauek aurkeztu dira:

- Construcciones Fco. Aierbe, S.L.
- Construcciones Artzamendi, S.A.ç
- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- Construcciones Uzturpe, S.L.
- Construcciones Irureta, S.L.

Bi mila eta hamabosteko urtarrilaren 23an, Kontratazio Mahiak, 21an egindako txosten teknikoaren arabera, proposatu zuen "Construcciones Francisco Aierbe, S.L." enpresari adjudikatzea.

Horretan oinarrituta, 2015ko urtarrilaren 23ko 0132 dekretuaren bidez "Construcciones Francisco Aierbe, S.L.," enpresari errekeritu zitzaion aurkezteko behin betiko fidantza egiaztatzen zuen ziurtagiria.

Urtarrilaren 27an aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan harturik azalpen honetan adierazitakoa eta Sektore Publikoko

**10.-Adjudicación de las obras de "Consolidación y recalce de la casa Abadetxe en Bº Bedaio"**

La Junta de Gobierno, de fecha 5 de diciembre de 2014, aprobó el expediente para la contratación de las obras de "Consolidación y recalce de la casa Abadetxe en barrio Bedaio"

Tramitado el correspondiente expediente de contratación mediante procedimiento abierto, se publicó el anuncio en BOG y en el perfil de contratante, a fin de que los interesados presentaran sus propuestas.

Durante la licitación se han presentado los siguientes licitadores:

- Construcciones Fco. Aierbe, S.L.
- Construcciones Artzamendi, S.A.
- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- Construcciones Uzturpe, S.L.
  
- Construcciones Irureta, S.L.

Con fecha 23 de enero de 2015, la Mesa de Contratación, en base al informe técnico emitido el 21 de enero, realizó propuesta como adjudicataria a la empresa Construcciones Francisco Aierbe, S.L.

En base a ello, mediante decreto nº 0132, de fecha 23 de enero de 2015, se requiere a la empresa "Construcciones Francisco Aierbe, S.L.," presente la documentación justificativa de haber constituido la garantía definitiva.

En fecha 27 de enero presenta la documentación referida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto

Kontratuen Testu Bateratuaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Refundio de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Lizitazio egintza balioz-kotzat jotzea eta "Construcciones Francisco Aierbe, S.L.", enpresari adjudikatzea Tolosako "Bedaio auzoko Abadetxe etxean sendotze eta lurreztatze" obretako kontratua, hurrengo era honetan:

- Prezioa: 259.548,61 € (BEZa barne).
- Exekuzio epea: 2 hilabetekoa izango da.

Aipatu adjudikazioaren oinarri udal ingeniariak txostenean jarritako arrazoiak izan dira, hauexek laburbilduta:

## ACUERDA

**PRIMERO.**- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a la empresa "Construcciones Francisco Aierbe, S.L.", el contrato para la " Consolidación y recalce de la casa Abadetxe en barrio Bedaio" de Tolosa, en los siguientes términos:

- Precio: 259.548,61 € (IVA incluido).
- Plazo de ejecución: 2 meses

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en el informe emitido por el ingeniero municipal y que se resume de la siguiente manera:

PLEGUA	ESKANTZA EKONOMIKOA	EUSKERA	BERDINTAS UNA	OBRAREN ANALISIA	KALTEAK EKIDITE NEURRIAK	EPEAK	MAKINARIA	TOTAL
	55	5	5	25	6	2	2	100,00

LICITADOR	ESKANTZA EKONOMIKOA	EUSKERA	BERDINTAS UNA	OBRAREN ANALISIA	KALTEAK EKIDITE NEURRIAK	EPEAK	MAKINARIA	TOTAL
AERBE	42,97	5,00	0,00	24,00	4,00	1,00	1,00	77,97
ARTZAMENDI	38,65	0,00	0,00	1,00	0,00	1,00	1,00	41,65
URKAZ	50,79	5,00	0,00	10,00	3,00	1,00	1,00	70,79
UZTURPE	53,93	5,00	0,00	3,00	2,00	1,00	1,00	65,93
IRURETA	55,00	0,00	0,00	9,00	1,00	1,00	1,00	67,00

**BIGARRENA.**-Aurkeztu diren lizita-tzaile guztiei adjudikazioa jakina-raztea.

**SEGUNDO.**- Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

**HIRUGARRENA.**- Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun eguneko epea jartzea, lizitatuzaileei adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

**TERCERO.**- Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles desde la notificación de la adjudicación a los licitadores.

**LAUGARRENA.**- Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizia-lean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea, adjudikatzenetik berro-geita zortzi eguneko epearen barruan.

**CUARTO.**- Publicar la formalización del contrato en el Boletín oficial de Gipuzkoa y en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

#### **11.- 44/2014 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **44/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **143.602,44€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- **44/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:30etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**